



HIRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINAK ▶

Eskerrik asko zuen lanagatik

Concha Chaosek, Sos Arrazakeriak, Maria Luisa Antonek, Xabier Muñozek eta Richard Oribek jaso dituzte Hiritar Merezimenduaren Dominak

XABIER ETXABE

Isilean egiten duten lana aitor-
tzeko eguna izan zen atzokoa.
Egun ahaztezina, Richard Ori-
be, Xabier Muñoz, Concepcion
Chaos, Sos Arrazakeria elkar-
tea eta Maria Luisa Antonen-
tzat. Nekez ahaztuko dute
2007ko urtarrilaren 19a.

Bostei eman zien alkateak
Hiritar Merezimenduaren Do-
mina eta hain une hunkiga-
rrian ezin lagun eta senitarte-
koek huts egin. Udaletxeko ba-
tzar aretoa jendez lepo bete
zen, inork ez zuelako halako
ekitaldi berezia galdu nahi.
Ikusleen artean ere, jende eza-
gun ugari. Tartean, Miguel
Fuentes Realeko presidentea,
eta baita hainbat politikari ere:
Leire Ereño Batzar Nagusieta-
ko presidentea, Miren Azkarate
Kultura sailburua, Izaskun Bil-
bao Eusko Legebiltzarreko
presidentea eta Joxe Joan Gon-
zalez Txabarri ahalidun nagusa.
Guztiak hurbildu ziren
udaletxeko ekitaldira beren es-
ker ona adieraztera, urteetan



Unzurrunzaga —Sos Arrazakeria—, Oribek, Muñoz, Chaos eta Anton, atzoko ekitaldian. I. OTEGI / ARGAZKI PRESS

egindako lan gogorra aintzat
hartuz.

Omenaldia jaso zutenen ar-
tean, batzuk ederki ezagutzen
dute jendearen txalo zaparra-

da jasotzea zer den; hain zuzen
ere, Richard Oribek sekulako
txalo zaparrada jaso zuen atzo,
beste behin ere. Beste batzuk,
aldiz, inongo zalapartarik gabe

egunero jartzen dute jendea-
ren ahotan irribarrea. Oraingo-
an, beraian aurpegira barrea-
tu zen poztasun eta emozioa-
ren keinua.

FESTA HANDIA

Saria jaso zutenen lana
eskertu eta goraipatzeko
ospakizuna izan zen
atzokoa

ESKER ONA

Richard Oribek igerilari
paraolimpiarrak sortu
zuen ikusmin handiena;
sekulako txalo
zaparrada jaso zuen

Ezin ukatu herritarrek
emandako omenaldiak xarma
berezia duela eta nabaria zen
hori atzoko omenuen artean.
Askok kostata eutsi zioten
emozioari.

Atzoko poza ez zen, ez, gu-
txiagorako, urtetan erruz lan
egin baitute bostek: Concha
Chaosek haurren liburuzaleta-
suna suspertzen, Xabier Mu-
ñozek ekitaldiak txistu hotsez
alaitzen, Maria Luisa Antonek
Urgulleko Mota gaztelua txu-
kuntzen, Sos Arrazakeriak
etorkinen alde lan egiten eta
Richard Oribek zailtasun guz-
tiak igerian gainditzen.

Eskerrak horiei guztiei urte-
etako esfortzuarekin hiria au-
rrera ateratzen lagundu dute-
lako.

HIRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINAK ESKURATUTAKOAK

RICHARD ORIBE IGERILARIA

«Oso pozik eta harro
nago bizi naizen
herritarrekin»

«Oso pozik nago dominare-
kin eta oso harro bizi naizen
herritarrekin. Igeri egiteagatik
domina ugari jaso ditut,
baina lehenengo aldia da he-
rriak halako sari bat ematen
didana. Jendearen aldetik
babes handia sentitu dut. Bi-
zikletan noala edota igerile-
kuan nagoenean jende asko
hurbiltzen da ni zoriortzera.
Herritarrek aho batez eman
duten erabakia da».

XABIER MUÑOZ TXISTULARIA

«Bultzada handia da
ekitaldietan txistua
jotzen dutenentzat»

«Duela bi hilabete Euskal He-
rriko Txistularien Elkarte-
ren Zilarrezko Domina jaso
nuen eta orain, hiriak sari
hau eman dit. Gaindituta sen-
titzen naiz, baina halako ome-
naldiek indar berezia eman-
go didate txistua jotzen ja-
rraitzeko. Are bultzada
handiagoa izango da txistua
ekitaldi desberdinetan egu-
nero jotzen aritzen diren guz-
tientzat».

SOS ARRAZAKERIA ARRAZAKERIAREN AURKAKO ELK.

«Zure lana estimatzen
dutela jakitea
ikaragarria da»

«Ezuste atsegina izan da.
Atsegina da etorkinek dituz-
ten trabak gainditzen direla
ikustea eta lan hori donostiar-
rek eta Gipuzkoan etorkinen
alde egiten duten elkarte-
kideek estimatzen dutela ja-
katea ikaragarria da. Domi-
nak, hala ere, ez du elkarte-
aren egunerokoa aldatuko, la-
nean jarraituko baitugu
etorkinen zailtasunak xa-
murtzen».

MARIA LUISA ANTON MOJA

«Egiten dudana lana
bizitza honetan
dagokidana da»

«Ez nuen omenaldi hau espe-
ro, baina poz handiz hartu
dut. Egiten dudana lana bizi-
tza honetan dagokidana da.
Jainkoaren borondatea, az-
ken finean. Ea sari honek gi-
zarteko harremana sustatu
eta bakearen alde egiteko
balio duen. Urgullen edota
bizitzan kalte egiten dutenak
etxean gera daitezela eta de-
noi bakean bizitzen utz gai-
tzelako».

CONCHA CHAOS LIBURUZAINA

«Liburutegi nagusi bat
behar da, Europaren
pare jartzeko»

«Dominen bitartez Udalak
emandako babes hau man-
tendu egin behar da gerora
ere, liburutegi nagusi bat lor-
tzeko eta horrela Europako li-
burutegiaren pare jar gaitzen.
Horrela europarrak hona
etor daitezten lortuko dugu,
eta ez alderantziz. Erabiltzai-
leei ere beren babesa esker-
tu nahi diet, haiei esker egin
baitugu aurrera unerik zaille-
netan».



JATETXEA

Juanito kojua

ONDO PASA SAN SEBASTIAN EGUNEANI

Kaia kalea, 14 • ☎ 943 42 01 80 • Faxa: 943 42 18 71
20003 DONOSTIA • www.juanitokojua.com



GOZOTEGIA
OIARTZUN

Bonboneria - Izoztegia
Berezitasuna: Irufak

Igentea, 2
Tel.: 943 42 62 09
DONOSTIA

ORDULARIGINTZA TAILERRA
BITXIGINTZA TAILERRA
URRE ETA ZILAR BAINUAK



SEIKO - LOTUS
FESTINA - CITIZEN
PULSAR - CASIO
SWATCH - FLIK-FLAK

ORDULARIGINTZA - BITXIGINTZA

EMIKEL

Karkizano, 9 behea - 20001 GROS-DONOSTIA - Tel.: 943 32 06 95 - Faxa: 943 32 01 15

SARIKETA
BAR

Fermin Kalbeton 23
(Parte Zaharra)
DONOSTIA